

Alto Campoo raketekin

2017ko urtarrilaren 28a, larunbata



Brañavieja herrixka koilatu baten goikaldean kokatuta dago 1600 metrotan. Bertatik la Calgosa bailararen jauna bezala, ingurune osoa kontrolatzen du. Bailara hau aintzinako glaziar batez eratuta dago. Aintzinako zirko hau Pico Tres mares (2172.6 m) du tontorrik ezagunena, bertan urak atlantikora, mediterraneora eta kantabrikora egiten baitdute. Beste tontor ezagunak dira: Cuchillon (2174 m), Cueto de la Horcada (2121 m) eta Cordel (2061 m).

Irteera ordua: 7:00 h Estadioko atean. Buelako ordua 20:00 - 20:30 Gasteizen

Zailtasuna: 300-400 m positibo. Estadio Fundazioak jende danori begirako zailtasun fisikoak dituen ekintza bat eskeintzen digu, formazio egun bat ere izanik. Gure giden esperientziak baliatuta hainbat toki izkutu bisitatuko ditugu. Xendasaletasunaren antza duen egun bat izango da desnivel gutxiren eta gozatzeko aukera ikaragarria.

Ibilbidearen azalpena: Elurra oso aldakorra da; hotsak, prezipitazioak, haizeak eta eguzkiak asko baldintzatzen dute. Beraz, guzti honengatik, ibilbea aurreko egunetan erabakiko dugu. Ala ere, desnibela eta distantzia urriak izango dira zeren berezko gogortasuna du medio honek.

Lurrazala: Zorua elurtuta izango denez, ez ditugu markatutako biderik topatuko. Ibilbidea orohar, laua izango da desnibel txikiren bat kenduta.

Erritmoa eta ordutegia: Astiro joango gara, beti ere taldearen erritmoraren moldatuz. Neguan elurrak eta hotzak, gehiago nekatzen dutenez, geldione motzak vaina maiztasun gehiagorekin egingo ditugu jan edateko.

Beharrezko materiala:

- Arropa beroa
- Txaqueta impermeable (gore txa)
- Txanoa eta eskularruak
- Eguzkitako betaurrekoak
- Aldatzeko arropa
- Eguzkitako krema
- Espainietarako protektorea
- Mendiko bota eginak eta uretarako erresistenteak.
- Ura eta janaria egun osorako
- Polainak
- **Erraketak eta bastoiak aldeztu aurretik alokatu ahal izango dira, ez izatearen kasuan (prezioa: 12 €)**

Gidak

Ibai Rico: Geografoa, glaciologoa eta geografiako irakaslea UPV-n. Patagonian, Artikokoan eta Himalayan inbestigatzen izan da. Alpinista eta eskalatzailea, Mendikate ezberdinak bisaitatu eta eskalatu ditu, adibidez Pirineoak puntaz punta HRPtik. Alpetan, Kilimanjaron, Kaucaison, Norbegian, Alaskan eta Alto Atlasen izan da gida lanetan veste batzuen artean.

Unai García Olano: Eskarmentu handiko alpinista, Pirineotan, Alpeetan eta Atlasean ibilitakoa, mendi-ertaineko gida eta irakasle moduan orientazio, autoeskate, lan bertikaletan eta ekintza gidatuetan izaten da lanean. 2013tik geroztik Estadioan ere gida lanetan dihardu Pirineotan eta Euskal mendietatik.